



DIRU ITURRIAK

Lehenik, aipatu kooperatiba sortu ahal izateko dagoen baldintza betetzeko, hasieran kide bakoitzak diru kantitate bat ipini beharko duela, eta denborarekin, irabaziak egon ahala itzuliko litzaizkiekela.

Proiektu honen diru-sarrera nagusien portzentajeak ondorengoak dira:

Bazkideak	% 10
Aldizkariko harpideak	% 5
Aldi baterako sarrerak	% 70
Diru laguntzak	% 10
<i>“Merchandising”</i>	% 5

Beraz, gure proiektuan sarrera **finkoak** eta **dinamikoak** izango genituzke. Alde batetik, **bazkideen** eta **harpideen** kuotak izango genituzke ordainketa errepikari bezala eta bestetik, antolatuko ditugun jarduera (hitzaldi, formakuntza saioak, yoga ikastaroak...) ezberdinetako **aldi baterako sarrerak**. Hala ere, kontuan hartuko genuke jarduera hauetan parte hartzerakoan bazkideek eta harpideek beherapen eta eskaintza berezia izango luketela.

Honez gain, **“merchandising”**a ere egingo genuke. Alde batetik, diru iturri bezala eta bestetik, publizitate modura. Horien artean: jertseak, kamisetak, kantinplorak, biserak... salduko genituzke.



Amaitzeko, elkarre edota instituzio ezberdinen **diru laguntzak** ere izango genituzke; Konfekoop eta Goieki, besteak beste, gazte ekintzaileak eta emakumeak garelako proiektua sortu dugunak.